


## Jean-Michel Berho. Domintxineko ahate hazlea



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

### Eskolan ikasitakoari bizkar

“Eskolan ikasitakoa egin nuen hasieran, arras espezializaturik. Laborantza industrialaren printzipio bat da espezializazioa. Ongi zihoan baina laster okertu zen. 1989an etxe ekoizleen elkarte sortu genuen eta nirea beste begirada batez so egiten hasi nintzen. Berea inposatzeko naturari gerra egiten dion sistemarik ez nuen nahi. Badu hogeitaz urte pasa ez dudala gehiago erremediorik, txertorik ala desinfektatzailek erabiltzen. Eta ahateak osasuntsu ditut”.

Auzo baten etxean hegazti gripea agerturik, beste hainbat laborariren gisara, prebentzioz ahateak hiltzera behartu zuten Jean-Michel Berho. Neurria ez onarturik, etxaldera zetozen Frantziako Estatuko osasun zerbitzuko ordezkariak oztopatzen aritu zen, kontsumitzaileak eta ELB sindikatuko laborariak zituela ondoan. Borroka irabazirik, irakaspen bat atera dela dio: “Ekoizleek badakite kolektiboki garaitu daitekeela makina administrazio pisu hau”.

## “Milioika hegazti hil dituzte, arazoaren zinezko kausari buru egin gabe”



Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa\_B

### Hegaztien gripea hor dago.

Gure marranta bezain ohikoa da. Une eta gune berean hegazti gripe forma bat baino gehiago daude. Baina azken urteetan agertzen diren gripe oso bortitz horiek hazkuntza kontzentratuei lotuak dira. Forma bortitz horiek ezin dute naturan edota dentsitate txikiko hazkuntzetan hazi, hegaztia berehala hil delako eta ez delako hedatzeko aukerarik. Haatik, abereak elkarren ganean diren hazkuntzetan bai, genetikoki biziki hurbil eta kasik klonak diren hegaztiekin bai. Duela milioika urte existitzen dira hegaztiak eta gripeak, hazkuntza txikiak ere duela milaka urte. Nolaz dira orain agertzen epidemia horiek? Aldaketa da nekazaritza industrialera geroz eta inportanteagoa dela, garraio gehiagorekin, kontzentrazioaren eraginez.

### Garraioaren bidez hedatu da.

Hamar milaka hegazti diren guneeetan birusaren kontzentrazio erraldoia kausitzen dugu. Naturan libratua dena, eraikinetan izan arren, aire kantitate

alimalea hartua eta kanporatua delako, arnasa hartu behar dutelako eta ongarrarian den amoniakoa atera behar zaielako. Gainera, hiltegiak edota gizentze guneeak garraiatuak dira, eta haien luma likistak naturan hedatzen dira.

### Hegaztiak hiltzea da emandako erantzuna.

Izurrite bortitz bat denean, normalean funtzionatzen duen egin-molde bat da. Gaur egun arazoa da hiltze sistema askoz zabalagoa finkatu arren garraioa ez dutela gelditu. Eritasuna hedatu da, eri ziren hegaztiak garraiatu dituztelako.

### Eta ahateen hiltzea inposatua zaizu.

Prebentziozko hiltze gune batean naiz. Milioika hegazti hil dituzte, arazoaren benetako kausari buru egin gabe. Funditze alimale horren aurka borrokatu gara.

### Etxe ekoizleentzat da zailena.

Jomugan gaituzte. Alta, ez dugu ezer garraiatzen, hegaztiak baserrian bertan haziak, galkatuak eta hilak dira. Ho-



*Hegazti gripe birus bortitzak hazkuntza industrialetan garatzen direla dio Jean-Michel Berhok. Ez da ordea bere hazkuntza hautua; ahateak kanpoan ditu, eremu zabalean bizi dira.*

ROGER AINCY

rregatik ditugu prebentziozko hiltzeak errefusatu.

### **Sostengu jendetsua jaso duzue.**

ELBren baitan sortu genuen iaz hegazti gripear buruzko gogoeta talde bat. Jada genioen garraioa zela epidemiaren arrazoi nagusia. Industrialak errotuak ziren, arras ongi zekitelako baina isilean atxikitzen zutelako. Garraioa geldituz arlo industrial guztia da erortzen. Hipokritak dira zeren udaberria etorri zaigu eta horrek du kontaminazioa txikitu.

### **Arriskua da datorren neguan berdina gertatzea.**

Guk hori diogu. Komedia zabal hori bukatu eta oinarrian den arazoari begira jarri behar gara, hots, hazkuntza industrialari eta garraioari.

### **Alerten datu basea estatuak kudeatzea nahi duzue.**

Interprofesionalaren esku da, industrialetan osatua, eta neurri guztiak dira ekoizle txikiak suntsitzeko. Guk osagarri sistema segurua dugu, ez ditugu neurri ultra-higienista horiek behar. Neurri horiek segitu dituzten hazkuntza erral-

doiak dira birusaz lehenik hunkiak izan. Argi da ez dela soluzioa. Ekonomikoki oso pisua da eta prozedura astuna Anitz ekoizle txikik dute etsiturik lanbidea utziko. Ezin onartuzkoa da, jakinez gainera jendarteak ekoizpen eredu hori duela geroz eta gehiago eskatzen.

### **Lanuzteari buruzko zifrak dauzkagu?**

Ez, ministerioak gorderik atxikitzen ditu. Ez dugu datuen berririk, nahigabean eskapatzen zaizkielarik jakiten ditugu. Iaz hazkuntza industrialen bi herenak kontaminatuak zirela horrela jakin genuen.

### **FDSEA sindikatua jakinean da?**

Noski.

### **Zein izan da haren joera azken mobilizazioan?**

Sekulako presioa jarri dio prefetari, hiltzeak behartzeko. Alta, prefetak gu entzunez du deskubritu egoera eta aterabide edo erdibide bat atzeman nahian zen. Laborantza ministeritzan, DGAL Elikaduraren Zuzendaritza Orokorren mailan teknokratik daude eta haiek dute desagerrarazteko politika erabakitzen.

### **Nolakoak dira kalte-ordainak?**

Hor ere industrialek presioa egin zuten ordainak haien ekoizleei banatzeko. Hainbeste non eta aurten batzuek zioten berriz hegazti gripea hartuko luketela, diru-sartzea dutelako lanik egin gabe. Haatik etxe ekoizleok ez gara hainbeste lagunduak.

### **Zein da arrazoia?**

Lobbyak dituztela parean. Indar harreman bat da, industrialek daukatena eta guk ez. Horregatik dira ekoizle txikiak deskuratuak. Gainera, biosegurtasun neurriekin inbertsioak emendatzen dira.

### **Azkenean borroka irabazi duzue.**

Hilketa oztopatzeke prest izango zen jendea genuen ondoan. Harrituak izan gara, batez ere bigarren aldirian. Bezpera gauean jakin genuen 6:30ean etorriko zirela eta mobilizatzeko tarte txikia izanda ere, lehen aldirian baino gehiago ginen. Landetako ekoizleok erran ziguten "lasterregi utzi ditugu hegaztiak hiltzera, banaka hartu gintuzten, beldurra sarraziz eta ez ginen kolektiboki antolatuta. Datorrenean erresistentzia adieraziko diegu". Irabazi izana eredu izan da. ■